[ Véase Norma Foral 1/2010, 8 julio, sobre participación ciudadana («B.O.G.» 14 julio ]

2. Los Presupuestos del Territorio Histórico

kontu orokorrak.

3. Lurralde osoari dagozkion sektoreko plan bereziak.

4. Lurralde Historikoaren zerga araubidea.

5. Toki erakundeen zerga propioak arautzea, haien tutoretza finantzarioa eta lurralde historikoko udalen finantzaketaren araubide orokorra.

[ Ikusi, 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena («G.A.O.» otsailak 12) ]

6. Probintziako nahiz udaletako ondasunen araubidea, herri jabarikoak, ondarezkoak, propioak nahiz auzo ondarezkoak izan.

7. Udalerrien mugaketak eta lurralde historikoaren mugak gainditzen ez dituzten udalez gaindiko mugaketak.

**10. artikulua. Araugintzarako ekimena eta kontrola.**

1. Batzar Nagusien aurrean, araugintzarako ekimena dagokie:

a) Batzar Nagusietako kideei eta batzarkide taldeei, Batzar Nagusien Araudian xedatutakoaren arabera.
b) Foru Aldundiari.
c) Lurralde Historikoko udalei.
d) Herritarrei araugintzarako herri ekimenaren bitartez, ekimen hori erregulatzen duen Foru Arauan xedatzen den eran.

2. Batzar Nagusietako kideek galderak, eskaerak eta mozioak aurkeztu ahal izango dituzte, bertako araudiak xedatzen duen eran.

y sus cuentas generales.

3. Los Planes extraordinarios sectoriales quque afecten a todo el territorio.

4. El régimen tributario del Territorio Histórico.

5. La regulación de los tributos propios de las Corporaciones locales, su régimen de tutela financiera y el régimen general de financiación de los municipios del Territorio Histórico.

[ Véase N Foral [GIPUZKOA] 1/2013, 8 febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa («B.O.G.» 12 febrero) ]

6. El régimen de los bienes provinciales y municipales, tanto de dominio público como patrimoniales o de propios y comunales.

7. Demarcaciones municipales y demarcaciones de ámbito supramunicipal que no excedan de los límites del Territorio Histórico.

**Artículo 10 Iniciativa normativa y control**

1. La iniciativa normativa ante las Juntas Generales corresponde:

a) A los miembros de las Juntas Generales y a los Grupos Junteros en los términos que se establecen en el Reglamento de las Juntas Generales.
b) A la Diputación Foral.
c) A los Ayuntamientos del Territorio Histórico.
d) A los ciudadanos en uso de la iniciativa normativa popular en los términos que se establecen en la Norma Foral que la regula.

2. Los miembros de las Juntas Generales podrán formular preguntas, interpelaciones y mociones en los términos que en su reglamento se establezca.

**11. artikulua. Udalen araugintzarako ekimena.**

1. Udalen araugintzarako ekimena gauzatuko da Foru Arau proposamenen bidez, gutxienez hiru udalbatzatan gehiengo osoak hala onarturik, udalak bi hauteskunde barrutikoak direlarik eta gutxienez hamar mila biztanle dituztelarik guztien artean. Halaber, udal sustatzaileek hiru ordezkari izendatu beharko dituzte, bere kide izaera dutenen artean, Batzar Nagusietan proposamena defenda dezaten.

2. Proposamenaren gaiak udalez gaindikoa izan beharko du eta ezingo du udal bati bakarrik dagozkion arazo edo interesen ingurukoa izan.

3. Udal bakoitzeko alkateak izenpetutako aurkezpen idatziarekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Foru Arauaren proposamenaren testua, zioen azalpen bat duelarik hasieran.

b) Memoria zehatz bat, udal sustatzaileen iritziz Foru Arauaren proposamena Batzar Nagusietara eramateko arrazoiak azaltzen dituena. Era berean, proposamenak aurrekontuan duen eraginari buruzko txostena, eta generoaren araberako aurretiazko ebaluazioa eta dagozkion neurri zuzentzaileak ere aurkeztuko dira testu artikulatuarekin batera.

c) Udal bakoitzeko idazkariak luzatutako ziurtagiria, udalbatzak hartutako erabakia kreditatuko duena araugintza ekimena erabiltzeaz, Foru Arauaren proposamenaren testu osoa onartzeaz eta udalaren ordezkaria izendatzeaz.

**Artículo 11 Iniciativa normativa municipal**

1. La iniciativa normativa de los Ayuntamientos se ejercerá mediante la presentación de Proposiciones de Norma Foral, aprobadas por la mayoría absoluta de los miembros de, al menos, tres corporaciones municipales, que pertenezcan a dos circunscripciones electorales como mínimo, y cuya población no sea inferior en su conjunto a diez mil habitantes. Las corporaciones promotoras designarán, asimismo, tres representantes que deberán ostentar la condición de miembro de alguna de ellas, quienes defenderán la proposición ante las Juntas Generales.

2. El objeto de la Proposición de Norma Foral deberá tener carácter supramunicipal no pudiendo circunscribirse a los intereses o problemática de un único municipio.

3. Al escrito de presentación, firmado por los respectivos Alcaldes, se deberá acompañar:

a) El texto articulado de la Proposición de Norma Foral precedido de una exposición de motivos.

b) Una memoria en la que se detallen las razones que aconsejen, a juicio de las corporaciones promotoras, la tramitación y aprobación por las Juntas Generales de la Proposición de Norma Foral. Asimismo, se acompañará un informe sobre la repercusión presupuestaria de la Proposición y una evaluación previa de la misma en función del género y de las medidas correctoras correspondientes.

c) Una certificación expedida por el Secretario o Secretaria de cada Ayuntamiento acreditativa de la adopción del acuerdo corporativo de ejercitar la iniciativa normativa, del texto íntegro de la Proposición de Norma Foral y la designación de representantes de las Corporaciones Locales.

## *II KAPITULUA. BATZAR NAGUSIEN ERAKETA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA*

**12. artikulua. Eraketa, antolaketa eta funtzionamendua.**

1. Gipuzkoako Batzar Nagusien eraketa, an-

## *CAPÍTULO II. DE LA CONSTITUCIÓN, ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LAS JUNTAS GENERALES*

**Artículo 12 Constitución, organización y funcionamiento**

1. Las Juntas Generales de Gipuzkoa se re-

tolaketa eta funtzionamendua haien araudian xedatutakoaren arabera egingo da.

Batzar Nagusiek bere kideen artetik lehendakari bat eta mahai bat hautatuko dituzte; mahaia osatuko dute lehendakariak, bi lehendakariordek eta bi idazkarik, hori izango da Ganbararen zuzendaritza organoa eta haren ordezkaritza kolegiatua izango du ekitaldi guztietan.

2. Halaber, Batzorde Iraunkorra izango dute, Batzar Nagusietako Lehendakaria buru duena, eta mahaiko gainerako kideak eta batzarkide taldeetako eledunak kide dituena; haren eginkizuna izango da Batzar Nagusien zereginak betetzea batzar saioen alditik kanpo edota haien agintaldia amaitu denean.

3. Batzorde Iraunkorraren osaera berarekin, Eledunen Batzordearen zereginak izango dira Ganbararen organoak koordinatzea eta jarduera antolatzea.

4. Batzar Nagusiek urtean batzar saioen aldi bakarra izango dute, eta osoko bilkuran nahiz batzordeetan bilduko dira.

5. Batzar Nagusietako Araudia aldatu edo indargabetzeko, baita araudi berri bat onartzeko ere, Batzar Nagusien gehiengo osoa beharko da proiektu osoaren gaineko azken bozketa batean.

6. Batzar Nagusietako Araudia Batzar Nagusien lehendakariak aldarrikatuko du, eta foru arau baten maila eta balioa izango ditu

[ 12.6 artikulua, Uztailaren 5eko 5/2006 Foru Arauak [barneratutakoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua Aldatzen duena («G.A.O.» uztailak 11). Indarreangotasuna: 2006/07/13 ]

[ Ikusi, Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudia Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2006ko uztailaren 2an onartutakoa («G.A.O.» uztailak 12) ]

girán en cuanto a su constitución, organización y funcionamiento por lo dispuesto en su Reglamento.

La Juntas Generales elegirán de entre sus miembros un Presidente o Presidenta y una Mesa, que estará integrada por éste, dos Vicepresidentes y dos Secretarios, la cual será el órgano rector de la Cámara y ostentará la representación colegiada de ésta en los actos a que asista.

2. Asimismo tendrán una Comisión Permanente presidida por el Presidente o Presidenta de las Juntas Generales e integrada por los demás miembros de la Mesa y los Portavoces de los Grupos Junteros, que desempeñará las funciones de las Juntas Generales cuando no se hallen en periodo de Sesiones o hubiese expirado su mandato.

3. Con la misma composición de la Comisión Permanente funcionará la Junta de Portavoces que tendrá atribuidas funciones de coordinación de los órganos de la Cámara y de organización de su actividad.

4. Las Juntas Generales se reunirán anualmente en un único período de sesiones y funcionarán en Pleno y Comisiones.

5. La modificación o derogación del Reglamento de Juntas Generales, así como la aprobación de uno nuevo, exigirá mayoría absoluta de las Juntas Generales en una votación final sobre el conjunto del proyecto.

6. El Reglamento de las Juntas Generales será promulgado por el Presidente o la Presidenta de las Juntas Generales, teniendo el rango y valor de una Norma Foral

[ Número 6 del artículo 12 introducido por el artículo único de la N. Foral [GIPUZKOA] 5/2006, 5 julio, de Modificación de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Historico de Gipuzkoa («B.O.G.» 11 julio). Vigencia: 13 julio 2006 ]

[ Véase Reglamento de las Juntas Generales de Gipuzkoa, aprobado por el Pleno de las Juntas Generales, en sesión celebrada el día 2 de julio

de 2006 («B.O.G.» 12 julio). ]

***III KAPITULUA. ORU DEKRETU ARAUGILEAK ETA FORU DEKRETU ARAUAK***

***CAPITULO III. DE LOS DECRETOS FORALES NORMATIVOS Y DECRETOS FORALES-NORMA***

**13. artikulua. Foru Dekretu Araugileak.**

**Artículo 13 Decretos Forales Normativos**

1. Batzar Nagusiek Foru Aldundian eskuorde dezakete Foru Arauen maila duten arauxedapenak, Foru Dekretu-Araugileak hain zuzen, emateko ahalmena, Foru Organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagozkion gaietan izan ezik.

1. Las Juntas Generales podrán delegar en la Diputación Foral la potestad de dictar disposiciones normativas con rango de Norma Foral, denominadas Decretos Forales Normativos, excepto en las materias que afecten a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

2. Araugintzarako eskuordetzaren helburua testu artikulatuak egitea denean, Oinarrizko Foru Arau baten bidez eman beharko da, eta Foru Arau batzuk bakar batera biltzea denean, Foru Arau arrunt baten bidez. Bi kasuotan, Batzar Nagusien erabakiak finkatuko du eskuordetza erabiltzeko epea.

2. La delegación normativa deberá acordarse mediante una Norma Foral de Bases cuando su objeto sea la elaboración de textos articulados o por una Norma Foral ordinaria cuando se trate de refundir varias Normas Forales en una sola. En ambos casos, el acuerdo de las Juntas Generales fijará el plazo de su ejercicio.

3. Oinarrizko Foru Arauek zehazki mugatuko dituzte eskuordetza araugilearen helburua eta irismena, baita hura erabiltzerakoan jarraitu beharreko printzipio eta irizpideak ere.

3. Las Normas Forales de Bases delimitarán con precisión el objeto y alcance de la delegación normativa y los principios y criterios que han de seguirse en su ejercicio.

4. Foru Arauak berregiteko baimenak azalduko du eskuordetzaren edukiari dagokion esparru araugilea, ongi zehazturik testu bakarra osatzera mugatzen ote den, ala berregin beharreko Foru Arauak antolatu, argitu edo bateratzea ere barne hartzen ote duen.

4. La autorización para refundir Normas Forales determinará el ámbito normativo a que se refiere el contenido de la delegación, especificando si se circunscribe a la mera formulación de un texto único o si incluye la de regularizar, aclarar o armonizar las Normas Forales que hayan de ser refundidas.

5. Eskuordetza araugilea erabiltzen duen bezain laster, Foru Aldundiak behar bezalako jakinerazpena bidaliko die Batzar Nagusiei, eskuordetzaren xedeko testu artikulatuarekin edo berreginarekin batera.

5. La Diputación Foral, tan pronto como hubiera hecho uso de la delegación normativa, dirigirá a las Juntas Generales la correspondiente comunicación, que contendrá el texto articulado o refundido objeto de aquélla.

6. Foru Dekretu Araugileak argitaratuko dira Foru Arauak argitaratzen diren bezala.

6. Los Decretos Forales Normativos se publicarán en la misma forma que las Normas Forales.

7. Auzitegien eskumen propioa baztertu gabe, Batzar Nagusiek bide osagarriak ezar ditzakete eskuordetza araugilea kontrolatzeko.

7. Sin perjuicio de la competencia propia de los Tribunales, las Juntas Generales podrán establecer fórmulas adicionales de control de la dele-

gación normativa.

**14. artikulua. Foru Dekretu Arauak.**

1. Behar larri eta apartekoek eraginda, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango ditu, bere eskumen esklusiboen esparruan; xedapen bereziok Foru Dekretu-Arauak izango dira eta ezin eragingo diete Foru O rganoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari.

2. Foru Dekretu-Arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan berariaz adierazi behar baitute Foru Dekretu-Araua berretsi ala indargabetzen duten; horretarako, Araudiak prozedura berezi eta laburtua ezarriko du. Berresten badute, Batzar Nagusiek erabaki dezakete Foru Arau proiektu gisa bideratzea premiazko prozeduraren bidez.

3. Foru Dekretu-Arauak argitaratuko dira Foru Arauak argitaratzen diren bezala.

**Artículo 14 Decretos Forales-Norma**

1. Por razones de extraordinaria y urgente necesidad, el Consejo de Diputados podrá dictar disposiciones normativas provisionales, dentro del ámbito de sus competencias exclusivas, que tomarán la forma de Decreto Foral-Norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

2. Los Decretos Forales-Norma deberán ser inmediatamente sometidos a debate y votación de totalidad de las Juntas Generales, que se pronunciarán expresamente, en el plazo de los treinta días siguientes a su publicación, sobre su convalidación o derogación, para lo cual el Reglamento establecerá un procedimiento especial y sumario. En caso de convalidación, las Juntas Generales podrán acordar tramitarlo como proyecto de Norma Foral por el procedimiento de urgencia.

3. Los Decretos Forales-Norma se publicarán en la misma forma que las Normas Forales.

## II TITULUA. FORU ALDUNDIA

### *KAPITULU BAKARRA. IZAERA, OSAERA ETA AGINTALDIA AMAITZEA*

**15. artikulua. Izaera eta osaera.**

1. Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren lege ordezkaritza du, haren gobernuaren eta administrazioaren ardura hartzen du, bere eskumenen barruan, eta berari dagozkio zeregin exekutiboak nahiz administratiboak, erregelamenduak emateko ahalmena eta arau-gintza ekimena.

2. Foru Aldundia Diputatu Nagusiak eta gehienez ere hamar foru diputatuk osatzen dute.

3. Aldundian bi sexuek gutxienez %40ko ordezkaritza izango dute.

## TÍTULO II. DE LA DIPUTACIÓN FORAL

### *CAPITULO ÚNICO. CARÁCTER, COMPOSICIÓN Y CESE*

**Artículo 15 Carácter y composición**

1. La Diputación Foral ostenta la representación legal del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en la esfera de sus competencias, asume su gobierno y administración, correspondiéndole las funciones ejecutivas y administrativas, la potestad reglamentaria y la iniciativa normativa.

2. La Diputación Foral se compone del Diputado o Diputada General y un número de Diputados Forales que no podrá exceder de diez.

3. En la Diputación Foral ambos sexos estarán representados al menos en un 40%.

**16. artikulua. Jurisdikzio kontrola.**

Auzitegiek kontrolatzen dituzte Foru Aldundiaren erregelamendu ahalmena eta administrazio jarduerararen legezkotasuna.

**17. artikulua. Diputatu Nagusia eta foru diputatuak.**

1. Diputatu Nagusiak Foru Aldundiaren ordezkaritza du, foru diputatuen ekintzak zuzendu eta koordinatzen ditu, eta Foru Arauetan nahiz legeetan atxikitzen zaizkion gainerako eginkizunak ditu.

2. Foru diputatuen eginkizun esparrua izango da esleitua duten departamentuarena, Diputatu Nagusiak izendatzen dituen foru dekretuan xedatutakoaren arabera.

Batzarkide ez diren foru diputatuek Batzar Nagusien batzarraldietan partaide izateko eskubidea izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

**18. artikulua. Erregelamenduak emateko ahalmena.**

1. Foru Aldundiak erregelamenduak emateko ahalmena du, Foru Dekretuen bitartez garatzeko Batzar Nagusiek emandako foru arauak, baita Autonomia Erkidegoko edo Estatuko legeak ere, legez ezartzen den eran.

2. Nolanahi den ere, Foru Aldundiari dagokio antolaketa erregelamenduak onartzeko ahalmena.

**19. artikulua. Agintaldia amaitzea.**

1. Foru Aldundiaren agintaldia amaitzen da:

a) Batzar Nagusien agintea amaitzen denean, eta,
b) Foru Arau honetako 27. artikuluan aurreikusten diren gainerako kasuetan.

2. Agintaldia amaitutako Foru Aldundiak bere eginkizunak betetzen jarraituko du Diputatu Nagusia berriz hautatu artean, administrazio eginkizunaren jarraitasuna eta botereen es-

**Artículo 16 Control jurisdiccional**

Los Tribunales controlan la potestad reglamentaria y la legalidad de la actuación administrativa de la Diputación Foral.

**Artículo 17 Diputado o Diputada General y Diputados Forales**

1. El Diputado o Diputada General ostenta la representación de la Diputación Foral, dirige y coordina las acciones de los Diputados Forales y ejerce las demás funciones que le atribuyan las Normas Forales y las Leyes.

2. Los Diputados Forales desempeñan sus funciones en el ámbito del Departamento cuya titularidad les asigne el Diputado o Diputada General en el Decreto Foral por el que proceda a su nombramiento.

Los Diputados Forales que no reúnan la condición de Procuradores-Junteros podrán asistir a las sesiones de las Juntas Generales con voz, pero sin voto.

**Artículo 18 Potestad reglamentaria**

1. La potestad reglamentaria de la Diputación Foral se extiende a la facultad de aprobar Decretos Forales de desarrollo de las Normas Forales de las Juntas Generales, así como de las Leyes de la Comunidad Autónoma o del Estado en los términos que legalmente proceda.

2. En todo caso, corresponde a la Diputación Foral la facultad de aprobar Reglamentos de carácter organizativo.

**Artículo 19 Cese**

1. La Diputación Foral cesa en los siguientes supuestos:

a) Con la finalización del mandato de las Juntas Generales, y,
b) En el resto de los casos previstos en el artículo 27 de esta Norma Foral.

2. La Diputación Foral cesante continuará en funciones hasta la nueva designación del Diputado o Diputada General, a fin de garantizar la continuidad de la función administrativa y el

kualdatze egokia bermatzeko.

3. .....

[ 19.3 artikulua, 2007ko uztailaren 2tik aurrerako ondorioekin, azaroaren 23ko 8/2007 Foru Arauak kendu du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu Eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua aldatzen duenak, Foru Aldundiko kideen eta goi-karguen bateraezintasunei, kargua uzteagatik emandako prestazio ekonomikoei eta pentsioei dagokienez (azaroaren 29ko 233 zk.ko GAO) ]

adecuado traspaso de poderes.

3. .....

[ El número 3 del artículo 19 ha sido suprimido, con efectos desde el 2 de julio de 2007, por el apartado uno del artículo único de la Norma Foral 8/2007, 23 noviembre, por la que se modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de incompatibilidades, prestaciones económicas por cese y pensiones de los miembros de la Diputación Foral y de los Altos Cargos (BOG nº 233, de 29 noviembre) ]

## III TITULUA. FORU ALDUNDIAREN ORGANOAK

### *I KAPITULUA. DIPUTATU NAGUSIA*

#### 1 SEKZIOA
**Diputatu Nagusiaren hautapena, izendapena, izaera eta estatutua**

**20. artikulua. Hautapena**

1. Diputatu nagusia Batzar Nagusiek hautatuko dute eskubidezko batzarkideen artetik, bozketa sekretu bidez.

2. Batzar Nagusietan ordezkaritza duen talde bakoitzak aurkeztu ahal izango dio Mahaiari Diputatu Nagusi izateko hautagai bat.

3. Diputatu Nagusia hautatzeko beharrezkoa izango da hautagai batek, lehen bozketan, Batzar Nagusietako kide hautetsien gehiengo osoaren botoa jasotzea.

Hautagai bakar batek ere ez badu lortzen gehiengo osoa, bigarren bozketa egingo da, eta orduan Diputatu Nagusi izendatua izango da boto gehien lortzen duen hautagaia.

4. Aurreko puntuan aipatzen den bigarren

## TÍTULO III. DE LOS ÓRGANOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL

### *CAPÍTULO I. DEL DIPUTADO O DIPUTADA GENERAL*

#### SECCIÓN 1
**Designación, nombramiento, carácter y estatuto del Diputado o Diputada General**

**Artículo 20 Designación**

1. La elección del Diputado o Diputada General la realizarán las Juntas Generales de entre sus miembros de derecho, mediante votación secreta.

2. Cada grupo con representación en las Juntas Generales, podrá presentar ante la Mesa un candidato o candidata a Diputado o Diputada General.

3. Para la designación del Diputado o Diputada General será necesario que un candidato o candidata tenga, en primera votación, la mayoría absoluta de los votos de los miembros electos de las Juntas Generales.

Caso de no conseguir ningún candidato o candidata la mayoría absoluta, se procederá a una segunda votación en la que será designado Diputado o Diputada General quien obtenga mayor número de votos.

4. Si celebrada la segunda votación a que se

bozketa eginik boto berdinketa gertatzen bada, Diputatu Nagusi izendatua izango da, berdindutakoen artetik, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan Gipuzkoako Lurralde Historikoan boto gehien lortutako alderdi politikoaren edo hauteskunde-federazioaren, koalizioaren edo taldearen hautagaia.

**21. artikulua. Izendapena.**

Diputatu Nagusia izendatzeko erabakia Batzar Nagusietako lehendakariak izenpetuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

**22. artikulua. Izaera.**

Diputatu Nagusiak Foru Aldundiaren lehendakaritzaren ardura hartzen du, eta horrenbestez:

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ordezkaritza nortu eta eramaten du, estatuarekin, Euskadiko nahiz gainerako autonomia erkidegoekin, beste lurralde historikoetako organoekin, udalekin nahiz bestelako administrazio, entitate, agintari edo pertsona publiko edo pribatuekin dituen harremanetan.

2. Foru Arauak aldarrikatzen ditu, Foru Dekretu-Araugileak eta Foru Dekretu-Arauak ematen ditu, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen du.

3. Batzar Nagusietako hauteskundeen deia egiten du.

**23. artikulua. Estatutu pertsonala.**

Diputatu Nagusiaren eskubide dira:

1. Bere karguari dagozkion ohore eta agurrak jasotzea.

2. Gipuzkoako ezaugarria ikur gisa erabiltzea.

3. Bere goi-hierarkiari dagokion ordezkaritza zereginak betetzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak izatea.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurre-

refiere el apartado anterior se produjera empate, será designado Diputado o Diputada General, entre los empatados, el candidato o candidata del partido político, federación, coalición o agrupación de electores que hubiera obtenido el mayor número de votos en las elecciones a Juntas Generales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**Artículo 21 Nombramiento**

El acuerdo de nombramiento del Diputado o Diputada General será firmado por el Presidente o Presidenta de las Juntas Generales y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Artículo 22 Carácter**

El Diputado o Diputada General asume la presidencia de la Diputación Foral, y en su calidad de tal:

1. Personifica y ostenta la representación de la Diputación Foral, en sus relaciones con el Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco y demás Comunidades Autónomas, con los órganos de los otros Territorios Históricos, Municipios y demás administraciones, entidades, autoridades o personas públicas y privadas.

2. Promulga las Normas Forales, expide los Decretos Forales Normativos y los Decretos Forales-Norma y ordena su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3. Convoca las elecciones a Juntas Generales.

**Artículo 23 Estatuto personal**

El Diputado o Diputada General tiene derecho a:

1. Los honores y tratamiento debidos a su cargo.

2. Utilizar la Enseña de Gipuzkoa como guión.

3. La asignación de los medios y recursos necesarios para el desarrollo de las funciones de representación que a su alta jerarquía corresponde.

4. Percibir las retribuciones que se determi-

kontu orokorretan ekitaldi bakoitzerako ezartzen diren ordainsariak jasotzea.

**24. artikulua. Ordainsariak eta bateraezintasunak.**

1. Diputatu nagusiak lansari edo ordainsari bakarra jaso dezake aurrekontu publikoen kargura, alde batera utzirik ordezkaritza gastuak.

2. Diputatu nagusia Euskadiko administrazioko kargu publikoen bateraezintasunari buruzko legeriaren menpean dago, eta ondorioz ezin du bere izaerari dagozkion eginbeharrak betetzeko ezintasunik edo eragozpenik jartzen duen jarduerarikegin, dena delakoa izanda ere, ez eta bere inpartzialtasuna edo independentzia zalantzan jartzen duenik edo foru interes publikoei kalte egiten dienik ere.

3. Zehazki, diputatu nagusiaren kargua bateraezina dakargu edo eginkizun hauekin:

a) Batzar Nagusietako lehendakari edo Mahaiko kide izatea.

b) Parlamentario jarduerak izatea Europako Parlamentuan, Gorte Orokorretan eta autonomia erkidegoko Legebiltzarrean.

c) Udal bateko alkate edo zinegotzi izatea.

d) Beste edozein jarduera publiko izatea Europako Batasuneko, estatuko administrazioko edo autonomia erkidegoko organo edo erakundeetan.

e) Kontseilu, aholkularitza, zuzendaritza eta administrazio eginkizunak izatea sindikatu edo ugazaben elkarteetan, elkargo profesionaletan, elkarteetan, fundazioetan eta gisako erakundeetan, edozein eratakoak direla ere, partaidetza bere karguari loturik dagoen kasuetan izan ezik.

f) Zuzendaritza, ordezkaritza, aholkularitza edo lan soileko eginkizunak izatea izaera zibil edo merkantila duen edozein modutako enpresatan, establezimendutan eta eskubide pribatuko sozietateetan.

4. Hautagai gisa lehiatuz gero Europako Parlamentuko,Gorte Orokorretako, Eusko Legebiltzarreko edo udaletako hauteskundeetan, ba-

nen en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de cada ejercicio económico.

**Artículo 24. Retribuciones e incompatibilidades**

1. El Diputado o Diputada General únicamente podrá percibir un sueldo o retribución con cargo a los presupuestos públicos, exceptuándose los gastos de representación.

2. El Diputado o Diputada General estará sujeto a la legislación sobre incompatibilidades para las y los cargos públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y por tanto no podrá ejercer actividades, cualquiera que sea su naturaleza, que impidan o menoscaben el estricto cumplimiento de los deberes propios de su condición, ni que comprometan su imparcialidad o independencia o perjudiquen los intereses públicos forales.

3. En particular el cargo de Diputado o Diputada General es incompatible:

a) Con el cargo de Presidente o Presidenta de Juntas Generales y miembro de la Mesa.

b) Con el ejercicio de mandato parlamentario en el Parlamento Europeo, en las Cortes Generales y en el Parlamento de la Comunidad Autónoma.

c) Con la condición de alcalde o alcaldesa, o concejalde cualquier municipio.

d) Con el ejercicio de cualquier otra función de carácter público en órganos o entidades de la Unión Europea, la Administración del Estado o de la Comunidad Autónoma.

e) Con el ejercicio de funciones de consejo, asesoramiento, dirección y administración en organizaciones sindicales y patronales, colegios profesionales, asociaciones, fundaciones y demás instituciones análogas, de cualquier clase, excepto cuando su participación sea por razón de su cargo.

f) Con el ejercicio de funciones directivas, representativas, de asesoramiento o de simple empleo, en cualquier clase de empresa, establecimientos y sociedades de derecho privado que tengan carácter civil o mercantil.

4. En el caso de concurrir a las elecciones al Parlamento Europeo, a Cortes Generales, al Parlamento Vasco o a las elecciones municipales, la

teraezintasuna gertatuko da hautetsi gisa izendatua den orduko.

5. Bere kargua uzten duen diputatu nagusia Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioko kargu publikoentzat kargua utzi eta gerorako aurreikusita dagoen bateraezintasun araubidearen mende egongo da..

6. ...

[ Azaroaren 23ko 8/2007 Foru Arauak idatzia, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua aldatzen duenak, Foru Aldundiko kideen eta goi-karguen bateraezintasunei, kargua uzteagatik emandako prestazio ekonomikoei eta pentsioei dagokien ez (azaroaren 29ko 233 zk.ko GAO) ]

[ Ikusi abenduaren 19ko 4/2011 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoaren eremuan jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzekoa (abenduaren 26ko 243 zk.ko GAO) ]

[ 24. artikuluaren 6. zenbakia, indarrik gabe utzi du abenduaren 19ko 4/2011 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoaren eremuan jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzekoak, bere xedapen indargabetzailean (abenduaren 26ko 243. zk.ko GAO) ]

**25. artikulua. Behin-behineko langileak**.

1. Diputatu nagusiak bere kabineteko behin-behineko langileak izendatu eta kargu gabetuko ditu, lanpostuen zerrendan halakotzat agertzen diren lanpostuetan, horren berri Diputatuen Kontseiluari emanik.

2. Aipatutako langileek laguntza eta aholkularitza eginkizunak izango ditu soilki, zernahi dela ere behin-behineko langile izaera izango dute, eta kargua utziko dute Diputatu Nagusiarekin batera.

incompatibilidad se producirá desde su proclamación como electo.

5. El Diputado o Diputada General que cese en su cargo estará sujeto al régimen de incompatibilidades de las y los cargos públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco previsto para después del cese.

6. ...

[ La redacción del artículo 24 ha sido modificado, con efectos desde el 2 de julio de 2007, por el apartado dos del artículo único de la Norma Foral 8/2007, 23 noviembre, por la que se modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de incompatibilidades, prestaciones económicas por cese y pensiones de los miembros de la Diputación Foral y de los Altos Cargos (BOG nº 233, de 29 noviembre) ]

[ Véase la Norma Foral 4/2011, 19 diciembre, reguladora de los registros de actividades y de bienes y de intereses en el ámbito del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa (BOG nº 243, de 26 de diciembre) ]

[ El número 6 del artículo 24 ha sido derogado por la disposición derogatoria de Norma Foral 4/2011, 19 diciembre, reguladora de los registros de actividades y de bienes y de intereses en el ámbito del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa (BOG nº 243, de 26 diciembre) ]

**Artículo 25 Personal eventual**

1. El Diputado o Diputada General designará y cesará al personal eventual de su gabinete en los puestos de tal naturaleza que figuren en la relación de puestos de trabajo, dando cuenta al Consejo de Diputados.

2. Dicho personal realizará exclusivamente funciones de asistencia o asesoramiento y tendrá, en todo caso, carácter eventual y cesará en su cargo cuando lo haga el Diputado o Diputada General.

## 2 SEKZIOA
## Diputatu Nagusiaren eskumenak eta eginkizunak

### 26. artikulua. Eskumenak eta eginkizunak.

Foru Aldundiko goi-organoa denez, Diputatu Nagusiari eskumen eta eginkizun hauek dagozkio, foru diputatu bakoitzak nork bere departamentuaren kudeaketaz dauzkan eskumenak eta erantzukizunak eragotzi gabe:

1. Araugintzari dagokionez:
a) Foru Arauen proiektuak egiteko prozesua zuzentzea eta Foru Aldundiaren araudi programa koordinatzea.
b) Foru Aldundiak nahiz berak onartutako Foru Dekretuak sinatu eta bideratzea; orobat, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

2. Batzar Nagusiekiko harremanei dagokienez:
a) Batzar Nagusietan, urtero, politika orokorreko adierazpena egitea Foru Aldundiaren izenean.
b) Batzar Nagusietan konfiantza-galdekizuna planteatzea, aldez aurretik Diputatuen Kontseiluan aztertuta.
c) Batzar Nagusien bilera deia eskatzea, aldez aurretik Diputatuen Kontseiluan hala erabakita.
d) Batzar Nagusien erabakipean jartzea Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, haiek gero onartu edo berrestekoak direnean.
e) Foru Aldundiari Batzar Nagusiek eskatzen dioten informazioa ematea.

3. Zuzendaritza politikoaren eginkizunari dagokionez:
a) Gobernu programa definitzea eta haren gidaritza eramatea.
b) Foru Dekretuaren bitartez definitzea Foru Departamentuek izan behar dituzten jardun esparruak eta eginkizunak, eta, orobat, horien izenetan nahiz eskumen banaketan izatekoa den edozein aldaketa.

[ Ikusi 2011ko ekainaren 30eko 4/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak

## SECCIÓN 2
## Competencias y funciones del Diputado o Diputada General

### Artículo 26 Competencias y funciones

Corresponde al Diputado o Diputada General como órgano superior de la Diputación Foral, sin perjuicio de la competencia y de la responsabilidad de cada Diputado o Diputada Foral en la gestión de su respectivo Departamento:

1. Con relación a la producción normativa:
a) Dirigir la elaboración de Proyectos de Normas Forales y coordinar el programa normativo de la Diputación Foral.
b) Firmar y expedir los Decretos Forales acordados por la Diputación Foral y por él mismo, o ella misma, y ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

2. En sus relaciones con las Juntas Generales:
a) Formular anualmente, en nombre de la Diputación Foral, ante las Juntas Generales, la declaración de política general.
b) Plantear ante las Juntas Generales, previa deliberación del Consejo de Diputados, la cuestión de confianza.
c) Solicitar la convocatoria de Sesión de Juntas Generales, previo acuerdo del Consejo de Diputados.
d) Someter a Juntas Generales los acuerdos del Consejo de Diputados que hayan de ser objeto de su posterior aprobación o ratificación.
e) Prestar a las Juntas Generales la información que éstas recaben de la Diputación Foral.

3. En el ejercicio de su función de dirección política:
a) Definir el programa de gobierno y llevar su dirección.
b) Definir mediante Decreto Foral las áreas de actuación y funciones de los Departamentos Forales, así como cualquier modificación en la denominación o en la distribución de competencias entre los mismos.

[ Véase Decreto Foral 4/2011, 30 junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de ac-

eta eginkizunak finkatzekoa (uztailaren 1eko 125 zk.ko GAO) ]

c) Foru diputatuak izendatzea eta karguga-betzea, eta departamentuen titularitatea esleitzea.

d) Diputatu Nagusiorde bat edo bat baino gehiago izendatzea, foru diputatuen artetik.

4. Antolaketaren gidaritzari, eginkizun administratiboei eta eskumen jarduerei dagokienez:

a) Departamentuen artean sortzen diren eskumen gatazkak ebaztea.

b) Bidezkoa baderitzo, departamentu baten edo baten baino gehiagoren buruzagitza hartzea bere gain, nahiz departamentuko foru diputatua ordeztuz nahiz ordezkatuz.

c) Departamentu bateko gaiez arduratuko den Foru Diputatua izendatzea, departamentu hartako titularra aldi baterako kanpoan, gaixo, bateraezintasunean edo eragotzita dagoenean.

d) Diputatuen Kontseiluko saioetarako deiak egitea eta bilera-buru izatea, gai zerrenda jartzea, deliberazioak zuzentzea eta bilerak bukatutzat jo edo etetea.

e) Bilera deiak egitea eta bilera buru izatea, aurreko atalean aipatutako ahalmen bertsuekin, sortzen diren Diputatuen Kontseiluaren batzorde eskuordetuetan.

f) Behar diren barne arauak ezartzea, Foru Aldundiko lanak behar bezala egin daitezen eta hartu behar diren erabakiak egoki presta daitezen.

g) Bidezkoa den informazio eskatzea foru diputatuei, haien kudeaketaren eta dagozkien departamentuen zereginen gainean.

h) Presazko arrazoiak direla medio, era guztietako egintzak gauzatzea eta errekurtsoak aurkeztea Administrazio Publikoaren organoetan, Justiziako auzitegietan eta Arbitraje Batzordean, eta horien berri Diputatuen Kontseiluari ematea.

i) Berak emanak diren egintzen aurka aurkezten diren errekurtsoak ebaztea.

5. Foru Aldundiaren ordezkari eginkizunari dagokionez:

a) Estatuarekin, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarekin, Gipuzkoako udalerriekin eta

tuación y funciones (BOG nº 125, de 1 de julio) ]

c) Designar y cesar a los Diputados Forales y asignarles la titularidad de los distintos Departamentos.

d) Nombrar, de entre los Diputados Forales, uno o varios Tenientes de Diputado o Diputada General.

4. En el ejercicio de su dirección organizativa, de sus funciones administrativas y actuación competencial:

a) Resolver los conflictos de competencias que puedan plantearse entre los distintos Departamentos.

b) Asumir, si lo estima oportuno, la jefatura de uno o varios Departamentos, bien por sustitución o suplencia de su Diputado o Diputada Foral.

c) Designar al Diputado o Diputada Foral que se encargue del despacho de un Departamento en caso de ausencia, enfermedad, incompatibilidad o impedimento temporales de su titular.

d) Convocar y presidir sesiones del Consejo de Diputados, fijar el orden del día, dirigir las deliberaciones y levantar o suspender las mismas.

e) Convocar y presidir con análogas facultades a las del apartado anterior las Comisiones Delegadas del Consejo de Diputados que pudieran crearse.

f) Establecer las normas internas que se precisen para el buen orden de los trabajos de la Diputación Foral, y para la adecuada preparación de los acuerdos que hayan de adoptarse.

g) Recabar de los Diputados Forales la información oportuna acerca de su gestión y de las tareas de sus respectivos Departamentos.

h) Acordar el ejercicio de toda clase de acciones y la interposición de recursos, por razones de urgencia, ante los Órganos de la Administración Pública, los Tribunales de Justicia y la Comisión Arbitral, dando cuenta al Consejo de Diputados.

i) Resolver los recursos que se planteen contra los actos por él o ella dictados.

5. En su calidad de representante de la Diputación Foral:

a) Mantener relaciones institucionales con el Estado, Comunidad Autónoma del País Vasco,

gainerako lurralde historikoekin eta beste administrazioekin erakunde harremanak izatea.

b) Aurreko atalean aipatutako enteekin lankidetza hitzarmenak eta akordioak sinatzea, betiere foru diputatuek dituzten eragotzi gabe.

c) Era guztietako kontratu, eskritura, dokumentu edo polizak sinatzea, betiere foru diputatuek beren ardurapeko departamentuen kontratu eta gastuetarako dituzten eskurantzak eragotzi gabe.

6. Aurrekontuko gaiei eta gastu baimenei dagokienez:

a) Aurrekontuari buruzko araudian esleitzen zaizkion aurrekontu aldaketak baimentzea.

b) Bere aurrekontuko gastuak baimendu eta konprometitzea, lehenengo xedapen gehigarrian adierazten den zenbatekoa baino txikiagoak direnean, baita legezko obligazioetatik eratorritakoak eta diru laguntza izendunetakoak ere.

c) Diputatuen Kontseiluari aurkeztea haren eskumenekoak direnak.

d) Bere aurrekontuko obligazio ekonomikoak aitortzea eta gastu ordainketak proposatzea.

7. Kontratazio arloari dagokionez:

a) Lehen xedapen gehigarrian adierazten den zenbatekoaren azpiko zenbatekoa denean, edozein motatako kontratazio espedienteak onartzea; ahalmen horrek berarekin darama gastua onartzea, baita kontratuei buruzko legeriak kontratazio organoari esleitzen dizkion gainerako eginkizunak ere.

b) Lehenengo xedapen gehigarrian adierazten den zenbatekoa edo handiagoa denean, kontratuak esleitzea, formalizatzea eta, egoki denean, luzatzea, berariaz hala jasota baldin badago espedientea onartzeko Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakian.

8. Foru Arauek eta Legeek esleitzen dizkioten gainerako ahalmen eta eskumen guztiak erabiltzea, eta, orobat, Foru Aldundiaren eskumenekoak diren eta arauek eta legezko xedapenek estatuko Gobernuko lehendakariari edo autonomia erkidegokoari esleitzen zaizkienak.

municipios de Gipuzkoa y otros Territorios Históricos y Administraciones.

b) Firmar convenios y acuerdos de cooperación con los entes citados en el apartado anterior, a salvo las atribuciones de los Diputados Forales.

c) Suscribir toda clase de contratos, escrituras, documentos o pólizas a salvo las atribuciones de los Diputados Forales para los contratos y gastos del Departamento del que sean titulares.

6. En materia presupuestaria y de autorización de gasto:

a) Autorizar las modificaciones presupuestarias que le atribuya la normativa de dicho orden.

b) Autorizar y comprometer gastos de su presupuesto por importe inferior a la cuantía señalada en la disposición adicional, así como los derivados de obligación legal y las subvenciones nominativas.

c) Elevar a la aprobación del Consejo de Diputados los que sean de competencia de éste.

d) Reconocer las obligaciones económicas y proponer el pago de los gastos de su presupuesto.

7. En materia de contratación:

a) Aprobar, cuando su importe sea inferior a la cuantía señalada en la disposición adicional, los expedientes de contratación de cualquier clase, llevando implícita esta facultad la de aprobación del gasto así como todas las demás facultades que la legislación en materia de contratos atribuye al órgano de contratación.

b) Adjudicar, formalizar y, en su caso prorrogar los contratos, cuando su importe sea igual o superior a la cuantía señalada en la disposición adicional, si así lo contempla expresamente el acuerdo de aprobación del expediente adoptado por el Consejo de Diputados.

8. Ejercer cuantas otras facultades y competencias le atribuyen las Normas Forales y las Leyes y aquellas que correspondiendo a atribuciones de la Diputación Foral se asignen por las normas y disposiciones legales al Presidente o Presidenta del Gobierno del Estado o de la Comunidad Autónoma.

**3 SEKZIOA**
**Diputatu Nagusiaren kargugabetzea eta ordeztea**

**27. artikulua. Kargugabetzeko kausak.**

Diputatu Nagusia hurrengo kasuetan kargugabetuko da:

a) Batzar Nagusien agintaldia amaitzean.
b) Zentsura mozio bat onartzean.
c) Konfiantza-galdekizun bat ukatzen zaionean.
d) Dimititzean.
e) Bere karguan jarduteko ezgaitasun iraunkorra, Batzar Nagusiek bere kideen gehiengo absolutuaz aitortua, sortzen bazaio.
f) Karguan jarduteko inhabilitatzen badute epai irmoaren bidez.
g) Bere heriotza gertatzen bada.

**28. artikulua. Kasuak eta ondorioak**

1. Aurreko artikuluko a) paragrafoan aurreikusitakoa gertatuz gero, kargugabetutako diputatu nagusiak bere eginkizunak betetzen jarraituko du diputatu nagusi berria hautatu eta izendatzen den arte, eginkizun administratiboak aurrera jarraituko duela eta aginte aldaketa egoki egingo dela bermatzearren.

2. Aurreko artikuluko b) paragrafoan aurreikusitako kasua gertatuz gero, onartutako zentsura mozioan proposatu den hautagaia izango da izendatua diputatu nagusi.

3. Aurreko artikuluko d) paragrafoan aurreikusitako kasuan, Batzar Nagusietako lehendakariari aurkeztu behar dio dimisioa diputatu nagusiak.

4. Aurreko artikuluko c), d), e) eta f) paragrafoetan aurreikusitako kasuak gertatuz gero, diputatu nagusi berria hautatuko da berehala, foru arau honen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dena dela, c) eta d) paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, kargugabetzen den diputatu nagusiak bere eginkizunak betetzen jarraituko du diputatu nagusi berria izendatu arte.

**SECCIÓN 3**
**Cese y sustitución del Diputado o Diputada General**

**Artículo 27 Causas de cese**

